

HAUTAZKOEN ESKAINTZARI BURUZKO ARAUTEGIA NOLA APLIKATU MASTERRETAN

Aurrekariak eta motibazioa

Honela dio Gobernu Kontseiluaren 2009/11/19ko Erabakiak: *Sólo se autorizará la oferta de asignaturas optativas cuando el número de estudiantes matriculados en el curso anterior haya sido mayor o igual que 10. ...En ningún caso se autorizará una asignatura optativa en la que el número de estudiantes matriculados en el curso anterior haya sido menor que 7.*

Arau hori hitzez hitz aplikatu balitz masterretan 2010/11 ikasturtean eta hurrengoetan, hautazkoak erabat desagertuko ziren master askotan, besteak beste master gehienak sortu berriak zirelako. Hori dela eta, 2010eko apirilean Akademia Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordeak onartu zuen gaur egun arte hautazkoen eskaintzan aplikatu den arautegia. Orain, masterrak nolabaiteko heldutasunera heldu direla, komenigarria dirudi arautegia moldatzea.

Dokumentuaren helburua

Dokumentu honetan azaltzen da nola aplikatuko diren hautazkoen eskaintzari buruzko arauak master ofizialen premietara. Zehazki, proposatzen da ikasturte bakoitzean eskainiko den hautazko kredituen kopurua arautzea honako aldagai hauek aintzat hartuta: kasuan kasuko master mota, aurreko ikasturtean matrikulatutako ikasleen kopurua eta ikasleek masterrean egin beharreko hautazko kredituen kopurua¹.

Hautazkoen eskaintza arautzeko irizpide orokorrak:

Lanbide arautuetarako master ofizialetan, hitzez hitz aplikatuko da graduetako hautazkoen arautegia.

Lanbide arautuetarako ez diren master ofizialetan, honela arautuko da gaia:

- Ikasturte batean **15 ikasle berri baino gutxiago** matrikulatzen badira master batean, hurrengo ikasturtean hautazko kreditu gehiago baimenduko dira, gehienez ere ikasleek orotara egin beharreko hautazko kredituak baino % 25 gehiago.
- Ikasturte batean **gutxienez 15 eta gehienez 20 ikasle berri** matrikulatzen badira master batean, hurrengo ikasturtean hautazko kreditu gehiago baimenduko dira, gehienez ere ikasleek orotara egin beharreko hautazko kredituak baino % 50 gehiago.

¹ Horretarako ez dira kontuan hartuko ez Practicumaren ez Master Amaierako Lanaren kredituak, halakorik balego.

- Ikasturte batean **20 ikasle berri baino gehiago** matrikulatzen badira master batean², hurrengo ikasturtean hautazko kreditu gehiago baimenduko dira, gehienez ere ikasleek orotara egin beharreko hautazko kredituak baino % 75 gehiago.
- Edozelan ere, master batean ezin izango dira eskaini ikasleek orotara egin beharreko kredituen % **175** baino gehiago (MALa kontuan hartu barik).

Kredituen kopurua gorantz biribilduko da, masterreko hautazko irakasgaien kreditu kopurua aintzat hartuta.

Aurrekoa gorabehera, ezin izango dira berriz eskaini 5 ikasle baino gutxiago matrikulatu diren irakasgaiak.

Aurreko irizpideen aplikazioa zenbait kasu konkretutan

Masterreko batzorde akademikoak erabaki beharko du ikasketa planean jasotako hautazko irakasgaietatik zein eskainiko den. Eskaintza aldatu ahal izango da ikasturte batetik bestera.

Master batean matrikulazioa nabarmen aldatu bada zeozergatik, azken hiru ikasturteetan matrikulatutako ikasle kopurua hartuko da aintzat.

Unibertsitate arteko masterretarako, kontuan hartuko da zenbat pertsona matrikulatu ziren UPV/EHUn masterra erakunde honetan irakatsi den azken ikasturtean, zenbaketa horretan kontuan hartuz irakasgai bat edo gehiago egiteko UPV/EHUn matrikulatu diren beste unibertsitateetako ikasleak (alegia, masterrean parte hartzen duten beste unibertsitateetakoak). Kasu horietan UPV/EHUko sailek eskainitako hautazkoak baino ez dira aintzat hartuko, hau da, ez 555555 kodea duten sailek eskainitako hautazkoak.

Bi urteko edo 60 kreditutik gorako masterretan, eskaintza aztertuko da promozio bakoitzari dagokion epe osoa aintzat hartuta.

Irakasleen eta ikertzaileen plantillen zuzendariak esango diete masterren arduradunei hurrengo ikasturtean hautazko zenbat kreditu eskain ditzaketen gehienez, eta zuzendariok ebatziko dituzte, halaber, eskaintza grabatzen denean irizpide hauek aplikatzean sor litezkeen arazo guztiak.

² Master ofizial berriak (lanbide arautuetarako ez direnak) kategoria honetakotzat joko dira.